

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 117/2024 Erabakia, martxoaren 5koa. Onespena ematea nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen 2024eko deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 27/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak.

Hura garatzeko ezarritako arau esparrua batzordearen abenduaren 14ko 2472/2022 (EB) Erregelamenduan kokatzen da. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan barne merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza kategoria deklaritzen dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Zehazki, 14. artikuluan xedatzen da nola arautuko diren nekazaritza ekoizpen primarioarekin lotutako nekazaritza ustiattegietan inbertitzeko laguntzak.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako gastuen aurrekontuan badago partida bat, 0101. G/414400/77000417 "Nekazaritzako ustiattegietako inbertsioak 2024" izenekoa, eta saldo nahikoa dauka. Hortaz, proposatzen da onestea laguntza horietarako 2024ko deialdia.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta, horregatik, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen 2024. urterako deialdiari (4.1. neurria), ekainaren 6ko Foru kontseiluaren 27/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da, honako xehetasun honekin:

a) Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, 2024ko deialdiaren erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

b) Eskaerak aurkezteko modua eta lekua:

Inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira dirulaguntza eskaera eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera.

Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

– Laguntza eta ordainketa eskaerak bide telematikoz egin ahal izango dira, egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-inversiones-explotaciones-agrarias>).

Alabaina, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa dagoen izapide zehatzaren bitartez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

– Diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea: 2023ko uztailaren 8tik aurrera, egun hori barne.

– Dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (III. eranskina).

– Ordaintzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (19. artikulua).

– Puntuazioa eta lehentasun irizpideak: laguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritakoak (13. artikulua).

– Laguntzaren ehunekoa: oinarri arautzaileetan ezarritakoa (12. artikulua).

2024rako aitortutako sektore estrategikoetako mota guztietako inbertsioetarako dirulaguntzaren ehunekoa ehuneko 10 handituko da.

– Inbertsioen moduluak eta xedearen arabera ezarritako gehieneko mugak: otsailaren 22ko 94/2024 Foru Aginduak onetsitakoak.

– Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/77000417 "Nekazaritza ustiattegietako inbertsioak 2024" partidaren kontura, urteka honela banatuta:

– 2024: 1.500.000,00 euro.

– 2025: 1.500.000,00 euro.

– 2026: 500.000,00 euro.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA